

10. GAIA. TORAXAREN TRAUMATISMOAK

Motak

- Zulatzaileak (irekia): toraxaren horma zulatuta dago eta zioa kanpoko da.
 - Neumotorax irekia
 - Hemotoraxa
 - Lesio trakeobronkiala
 - Biriken kontusioa
 - Diafragmaren haustura
 - Mediastinoaren lesioa
- Ez zulatzaileak (itxia): toraxaren horma ez dago zulatuta eta zioa barnekoa da.
 - Neumotorax itxia
 - Tentsio neumotoraxa
 - Lesio trakeobronkiala
 - Torax ezegonkorra
 - Diafragmaren haustura
 - Lesio mediastinikoa
 - Saihetsen haustura

ZAURI ZULATZAILEAK

Objektu zorrotz, arma zuria edo balek egindako zauriak izaten dira.

Arriskutsuena ez da toraxaren horman egiten den zauria, baizik eta barruan dauden organo garrantzitsuen lesioak: biriki, bihotza, hodi handiak, diafragma, gibela, barea etab.

Hemotoraxa egotea ere ohikoa da.

Sintomak

- Konfusioa
- Narritadura
- Hipotentsioa
- Takikardia
- Azala zuria
- Arnas estua
- Disnea
- Eztula
- Mina

Tratamendua

- ABCDE
 - A → Arnas bideak + kontrol zerbikala (collarin)
 - B → Bentilazioa eta oxigenazioa
 - C → Zirkulazioa eta odoljarioak
 - D → Neurologikoki nola dagoen (korszientea,...)
 - E → Dauden lekua nola dagoen (errepide erdian, etxea kearekin...)
- Zauria ondo tapatu airea edo infekzioak sar ez daitezen
- Zain barneko bideak hartu : odola atera analisi eta transfuziorako prestatzeko. Zain barneko likidoak jarri
- Kateter zentrala
- Drainadura

Erizaintzaren eginkizunak

1. Balioespena

Datu subjektiboak:

- Lesioaren informazioa: noiz, nola, non etab
- Gaixoa gai ez bada berarekin datozenei informazioa eskatu

Datu objektiboak

- Neumotorax (handia): disnea, ansietatea, pultsu ahula eta arina
 - Toraxaren hormaren mugimendu gutxiago
 - Trakea beste alderantz mugitu (*neumotoraxa dagoen birika kolapsatzen delako*)
 - Perkusioan: hipererresonantzia
 - Auskultazioan: arnas zarata gutxiago
- Saihets haustura: Mina palpazioan
- Torax ez-egonkorra:
 - Min handia arnasarekin
 - Bularra paradoxikoki mugitzen da
 - Bihotz maiztasuna ↑, arnas maiztasuna ↑, TA ↓
- Zauri zulatzaileak:
 - Shock (hipotentsioa, pultsu ahul eta irregularra, azala zuri, izerdi hotza).
 - Arnasa hartzeko zailtasun handiak
- Froga diagnostikoak:
 - Rx
 - Gasen analisisa

2. Inplementazioa

- ABC-ak
- Oxigenoterapia
- Bizi zeinuan monitorizazioa: bihotza, TA, oximetria, gernuzundak
- Zain-barneko bideak: odola atera → analisi eta transfuziotarako
- Gasa arterialak
- Zauriak estali

TORAX EZEGONKORRA

Saihets batzuk (bat baino gehiago) edota bularrezurra apurtzen direnean, bularraren zati horrek bularraren hormaren beste zatiarekin euskarria galtzen du.

Arnastean saihets horiek euren kabuz mugituko dira → mugimendu paradoxikoa (*toraxa ezegonkorra dagoenean*) = "volet costal". Arnasa hartzerakoan bularraren hormaren zati hori zabaldu beharrean barrurantz doa eta espirazioan kanporantz, beraz arnasa hartzeak gehiago kostatzen du.

Tratamendua

- Ezegonkorra den zatia egonkortu
- Orokorrean aireztapen mekanikoa behar dute
- Oxigenoterapia
- Analgesia

SAIHETSEN HAUSTURA

Toraxaren lesiorik ohikoena da. Batez ere 3-10. saihetsetara, kanporago daudenez muskuluek ez dute hainbeste babesten.

Orokorrean golpea hartu den tokian hausten dira, baina gerta daiteke handik urrunera gertatzea.

Gehienetan kolpeen ondorioz sortzen dira, baina haustura patologikoak ere egon daitezke edota ezul gogorra dagoenean.

Saihetsa apurtzean birikia edo pleura zula daitezke, hemotorax edo neumotoraxa sortuz.

Sintomak

- Mina arnasa hartzean edo botatzean eta toraxa mugitzean
- Mina eztula egitean
- Arnas oso azalekoa egiten dute min gutxiago izateko, ondorioz infekzioak sortuz.
- Mina toki horretan

Diagnostikoa

- Sintomatologia +
- Azterketa fisikoa +
- Rx

Tratamendua

- Sintomatikoa: analgesikoak + arnas fisioterapia (arnasa sakonki hartu)
- Birikietako patologia kronikoa dagoenean batzutan antibiotikoak ematen dira, profilaktikoki.